- Partidatan gai taktiko eta estrategikoak aurkitzea.
- Problemak ebaztea eta haiek sailkatzea gai taktikoen arabera.
- Joko erdiko posizioa balioesteko parametroak erabiltzea.
- Joko-planak egitea, posizio batean nagusi diren faktoreen arabera.
- Posizioei buruzko judizioen ahozko eta idatzizko aurkezpenak planifikatzea, egitea eta ebaluatzea.

JARRERAK

- Hausnarketaren garrantzia balioestea gure ekintzen ondorioak aurreikusteko, eta zentzu kritikoa garatzea askotariko egoeretarako.
- Planak irudikatu ostean haiek eragiketa eta metodo taktikoen bidez gauzatzen direla aintzat hartzea.
- Arreta eta kontzentrazioa mantentzeko jakin-mina, hausnarketa-prozesua eta metodo taktikoak erabiliz.
- Jokoak eskaintzen dituen aukera ugariak ezagutzeko jakin-mina.

***<u>Partida-amaierak</u>***

A. Ideia orokorrak
B. Oinarrizko mateak. Matea damarekin. Matea bi gazteluekin. Matea gaztelu batekin. Matea bi alfilekin. Artzain-matea, eroaren matea eta inozoaren matea. Eskailera-matea. Matea bi gaztelurekin. Musuaren matea: matea erregearekin eta damarekin. Matea erregearekin eta gaztelu batekin.
C. Peoien amaiera soilak.
D. Partidak
E.

PROZEDURAK